

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Behin betiko onestea Amurrion gazteentzako etxebizitzak alokatzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza

Udalbatzak, 2023ko martxoaren 30eko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Amurrion gazteentzako etxebizitzak alokatzeko laguntzak arautzen dituen ordenantzari (2022/S04.06.04.02/7 espedientea), eta 2023ko apirilaren 14ko ALHAOn (44. zk.) argitaratu zen. Haren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan xedatutakoa betez. Horrela, bada, bat etorri 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen da eta, horretarako, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da. Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen ordenantzaren testua hitzez hitz:

AMURRIKO UDALERRIAN GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, gazteentzako etxebizitzak alokatzeko.

2. artikulua. Deialdiaren helburua eta araubidearen justifikazioa

Hauek dira deialdi honen helburuak:

- Gazteei emantzipatzeko eta helduaroan sartzeko prozesuan laguntzea.
- Gazteen artean etxebizitza alokairuan eskuratzeko aukera sustatzea Amurriko udalerrian.

3. artikulua. Aurrekontua

Deialdi honetarako aurreikusitako zenbatekoa 35.000,00 euro da 2023. urterako, 2023ko udal aurrekontu orokorreko 33401.480 aurrekontu partidaren kontura.

Aipatutako zenbateko hori handitu egin daiteke, beste laguntza programa batzuk gauzatu ondoren agortu gabe eta erabilgarri geratzen den aurrekontuaren arabera, edo onets daitezkeen aurrekontu aldaketen arabera, laguntzei buruzko ebazpena eman aurretik. Halakorik gertatuz gero, dagokion ebazpenaren bidez jakinaraziko da.

4. artikulua. Xedea

Amurrion 18 eta 35 urte bitarteko gazteek 2021ean ohiko bizileku gisa erabiltzeko etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea.

Dirulaguntza ordenantza honetan ezarritakoaren arabera emango da, onuradunek 2021ean beren gain hartutako alokairu gastuaren zati bat estaltzeko, betiere oinarrietan ezarritako baldintzei eusten bazaie aldi horretan zehar.

2021ean sortutako gastuei dagozkien dirulaguntzak izapidetu ondoren aurrekontua agortzen ez bada, 2022an sortutako gastuak diruz laguntzeko erabili ahal izango da, horretarako deialdia egin ondoren.

Kanpoan geratzen dira eranskinei dagozkien gastuak, hala nola garajea edo trastelekua, komunitate eta administrazio gastuak, bai eta kontribuzio eta ariel gisa sortzen direnak ere, dagokion kontratuan berariaz jasota egon arren. Gastu horiek banakatuta agertu beharko dira alokairu kontratuan. Kontratuan sartuta badaude eta bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten ez bada, hileko kostutik 30,00 euroko balio finkoa deskontatuko da kontzeptu horiek direla eta.

5. artikulua. Onuradunak

Laguntzen onuradun izan daitezke, indarrean dagoen aurrekontu ekitaldiaren kargura, argitaratzen den datan eta diruz lagundu daitekeen aldian betekizun hauek betetzen dituztenak:

18 urte baino gehiago eta 35 baino gutxiago izatea alokairu-kontratua sinatzeko unean, eta kontratu horren titularrak izatea. Gelen azpierrentamendua baztertuta geratzen da.

Laguntzaren onuraduna ezin izango da ezain etxebizitzaren jabe izan, salbu eta jaraunspen edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkidea bada, baldin eta titularkidetasun ehuneko bakar batek ere ez badu gainditzen ehuneko 50a eta etxebizitza partaidetzen balioa ez bada 75.000 eurotik gorakoa. Ondasun horiek jabekidetzan baloratzeko, higieziaren katastro-balioa ehuneko 40 handituko da, eta titularkidetasun ehunekoa aplikatuko da. Prozedura horren bidez partaidetzen balioaren batura 75.000,00 eurotik gorakoa bada, eskatzaileari entzungo zaio, jabekidetasuneko ondasunen tasazioa aurkeztu ahal izan dezan. Salbuesuta daude genero indarkeriaren biktima diren emakumeak, baldin eta etxebizitza segurtasun motiboengatik utzi behar izan badute.

Onuradunak ezin izango du beste laguntzarik jaso alokairuagatik, diruz lagundu daitekeen aldi osoan.

Onuradunek dirulaguntzaren xede den etxebizitzan erroldatuta egon behar dute. Era berean, Amurrioko udalerrian erroldatuta egon beharko dute, eskaera aurkezteko unean gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin eta etenik gabe, edo udalerrian erroldatuta egon beharko dute 5 urtez, etenekin bada ere.

Diruz lagundu daitekeen aldi osoan etxebizitzan erroldatuta egon ahal izango dira soilik kontratuaren titularrak eta haien ardurapeko adingabeak.

Kontratuaren titularrak ez diren pertsonak badaude etxebizitzan erroldatuta kontratua hasi aurretik, kontratuaren titularrek pertsona horiei erroldan baja emateko eskaera egin beharko dute laguntza eskatu aurretik, eta borondatezko baja pertsonala onartuko da.

Onuradunek ezingo dute 30.000,00 euro gordin baino gehiagoko diru sarrerarik izan urtean. Urteko diru sarrera gordintzat hartuko da hauen batura: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarri orokorra, lan etekinei aplikatutako hobariak eta eskaerak aurkezteko unean indarrean dagoen zerga ekitaldiko beste edozein diru sarrera ez-kontributibo.

Diru sarreren osaerari dagokionez, amaitutako azken zerga ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako etekin gordinen zenbatekoa, guztira, ezin izango da urtean 600,10 eurotik gorakoa izan.

Onuradunek egunean izan beharko dituzte Amurrioko Udalaren eta beste administrazio publiko batzuen zergak, tasak, arielak eta zehapenak.

Onuradunen eta errentatzailearen artean ezin izango da egon bigarren mailara arteko odol edo ezkontza ahaidetasunik etxebizitzan bizi diren pertsonen aldetik.

6. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko betekizunak

Laguntzaren xede den etxebizitza Amurrioko udalerrian kokatuta egon behar du.

Ez dira diruz lagunduko honako hauek:

Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.

Azpierrentamenduak.

Gelen errentamenduak (bizitzeko eskubidea).

Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.

Etxebizitzaren alokairuaren kostua ezin da hilean 700,00 eurotik gorakoa izan hiru kide arteko familia unitateentzat edo familia unitateak ez diren bestelako unitateentzat. Familia unitateak ez diren hiru kide baino gehiagoko bestelako unitateentzat, gehieneko kostua kide kopurua x 250,00 euro izango da.

Iraupenari dagokionez, alokairu kontratuek Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legean xedatutakoa bete beharko dute. Ez da onartzen urtebetetik beherako kontraturik, ezta denboraldiko kontraturik ere.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean jarri zenetik, nahitaezkoa da hiri errentamenduko kontratuak erregistratzea eta haietatik eratorritako fidantzak gordailutzea Eusko Jaurlaritzan, Bizilagun zerbitzuaren bidez.

7. artikulua. Agiriak

Eskatzaileek behean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Eskatzaile bakoitzak eskaera bat bete beharko du.

Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek jaso behar dituenak: alokatuko den etxebizitzan bizi diren edo biziko diren eta deialdiaren eskakizun bereziak betetzen dituzten pertsonak.

Laguntzaren eskatzaile bakoitzaren NANA edo bizileku txartela. Adingabeak egonez gero, familia liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da. Dokumentu hori beharrezkoa izango da, nolahi ere, filiazioa egiaztatzeko, ondorengoak alegatuz gero.

18 urtetik gorako eskatzaile guztiek estatuan etxebizitza baten jabe ez direla egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, jabetza erregistroak emana eta laguntzen eskaera aurkezten den eguna baino hilabete lehenagokoa gehienez.

Gainera, etxebizitzaren titularkide izanez gero, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

Herentzien kasuan, herentziaren onarpena eta partaidetza eskritura.

Dohaintzen kasuan, dohaintza eskritura.

Kasu batean zein bestean partaidetza salduz gero: eskualdatze eskritura.

2021ean, eta hala badagokio, 2022an alokairuari dagozkion hilekoak ordaindu izanaren bankuko egiaztagiria.

Bizilagun-en erregistratutako etxebizitzaren indarreko errentamendu kontratua, indarrean dagoena eta diruz lagun daitekeen aldia hartzen duena. Laguntza eskatzen duten 18 eta 35 urte bitarteko pertsona guztiek kontratu horren titularrak izan behar dute, seme-alabak ardurapean dituzten senar-emazteek edo izatezko bikoteek izan ezik.

Zerga ekitaldiari dagokion diru sarreren ziurtagiria, aurkezten diren gastuei buruzkoa, A edo B kasuaren arabera:

PFEZ aitortu behar duenak edo aitortu duenak honako hauek egiaztatu behar ditu:

Eskaera aurkezteko unean, igaro den azken zerga ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruz aurkeztutako aitortpena.

Gainera prestazio ez-kontributiborik jasotzen bada, haien ziurtagiria.

PFEZ aitortu behar ez duenak honako hauek egiaztatu beharko ditu:

Ekitaldi horretan (eskaera aurkezteko unean igaro den azken zerga ekitaldia) PFEZren aitortpena aurkezteko beharrik ez duela egiaztatzen duen Foru Ogasunaren egiaztagiria.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako lan bizitzaren egiaztagiria.

Gainera, hala dagokionean:

Besteren konturako langilea izanez gero, enpresak edo enplegataileak egindako agiria, ekitaldi horretan kontzeptu guztiengatik jasotako diru sarrera gordin guztiak jasotzen dituen.

Pentsioa edo edozein beka, prestazio edo laguntza jasoz gero (Gizarte Ongizatearen laguntzak barne), haien ziurtagiria, ekitaldi horretakoa.

Eskatutako dokumentuak udalaren esku badaude, eskatzaileak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikulua d) letran ezarritakoari heldu ahal izango dio.

Eskatzaileak berariaz aurka egiten ez badu, Amurrioko Udalak, oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eskatzailearen familia unitatea osatzen duten pertsonen buruzko informazio hau kontsultatu ahal izango du elkarreragingarritasun-sistemetan:

– PFEZa aitortzeko betebeharrak ez duten pertsonen kasuan, azken bost urteetako lan bitzita, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren (Estatuko Administrazio Orokorra) kontsulta zerbitzuan.

– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ondasun higiezinaren titularrak diren pertsonen kasuan, katastro datuak, Katastroko Zuzendaritza Nagusian (Estatuko Administrazio Orokorra).

– Gizarte prestazio publikoak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean (Estatuko Administrazio Orokorra), diru sarrera ez-kontributiborik dagoen jakiteko.

– Diru sarrerak bermatzeko errenta, Lanbiden (Eusko Jaurlaritza), diru sarrera ez-kontributiborik dagoen jakiteko.

– Foru ogasunen PFEZa, kotizaziopeko zein diru sarrera dagoen jakiteko.

– PFEZa aitortzeko betebeharrak ez duten pertsonen kasuan, langabezia prestazioak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (Estatuko Administrazio Orokorra) kontsulta zerbitzuan.

– Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan ondasun higiezinaren titularrak diren pertsonen kasuan, ondasun higiezinak, foru aldundietan.

– Etxebizitza eskubide subjektiboari eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoak, Eusko Jaurlaritzan, diru sarrera ez-kontributiborik dagoen jakiteko.

8. artikulua. Aurkezteko tokia eta epea

Eskaerak bi modutan aurkez daitezke:

Aurrez aurre (HAZ - Herritarrentzako Arreta Zerbitzua).

Linean, Amurrioko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez. Horretarako, eskatzaileak ziurtagiri elektronikoko baliiodun bat izan beharko du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 eta 16.5 artikuluetan jasotako moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Laguntzen deialdirako eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliioduneko izango da, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaerak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betebeharrak, interesatuari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko, gehienez ere 10 eguneko epe luzaezinean, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan jasotako moduan ebazpena eman ondoren.

9. artikulua. Organoak eta ebazpena, prozedura eta epeak

Ebazpena emateko eskumena tokiko gobernu batzarrak izango du, alkateak eskuordetuta, eta hark emango du ebazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako instrukzio egintzak egin ondoren, honela:

Eskaera aurkezteko unean, dokumentazioa osatuta dagoela egiaztatuko du gazteria arloak. Eskaerak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betebeharrak, interesatuari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko, gehienez ere hamar (10) egun baliioduneko epe luzaezinean, eta adieraziko

zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan jasotako moduan ebazpena eman ondoren.

Eskaerak tokiko gobernu batzarrak ebatziko ditu, aurkezten direnetik gehienez ere hiru (3) hilabeteko epean. Gazteria arloak haiei buruzko txostena egingo du, eta, hala badagokio, baita esleipen proposamena ere.

Epe hori igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskatzaileak ulertu beharko du bere eskaera ezetsi egin dela.

Laguntzak jasotzeko eskubidea norgehiagoka bidez aitortuko da, eta laguntza kalkulatzeko, laguntzen onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonentzako gehiengo zenbatekoa hartuko da kontuan.

10. artikulua. Ordaintzeko eta justifikatzeko prozedura

Aitortutako dirulaguntza pertsonala da.

Pertsona bakoitzeko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza bakoitzeko hileko laguntza zati kontratuaren titular guztien kopurua egingo da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa hileko alokairuaren ehuneko 30etik ehuneko 50era bitartekoa izango da gehienez, tarte sistema baten arabera, pertsonen justifikatutako urteko diru sarrera gordinen arabera:

TARTEA	URTEKO DIRU SARRERA GORDINAK	ALOKAIRUAREN HILEKO EHUNEKOA	DIRULAGUNTZAREN GEHIENEO MUGA
1	3.000 euro-9.000 euro	ehuneko 50	350 euro
2	9.001 euro-18.000 euro	ehuneko 40	280 euro
3	18.001 euro-30.000 euro	ehuneko 30	210 euro

Laguntzak ordaintzeko prozedura:

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da.

Ofizioz egiaztatuko da bizikidetzaren unitateko kideak alokatutako etxebizitzan erroldatuta daudela.

Onuradunen dokumentazioa eta betekizunak egiaztatu ondoren, laguntza ordainduko da, aurrekontua betearazteko arauan adierazitakoaren arabera.

Aurrekontu partida nahikoa bada aurkeztutako eskaerei erantzuteko, oinarri hauen baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean hainbanatuko da.

11. artikulua. Errebokatzeko arazoak

Oinarri hauetan edo Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean jasotako baldintzaren bat betetzen ez bada, errebokatu egingo da dirulaguntza eta, hala badagokio, bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

12. artikulua. Bateragarritasuna

Deialdi honetan parte hartzea ez da bateragarria aldi berean beste erakunde batzuek kontzeptu beragatik emandako dirulaguntzak jasotzearekin. Bestalde, Bizigune programaren bidez alokatutako etxebizitza bat duten gazteek ezingo dituzte dirulaguntza hauek eskatu.

13. artikulua. Argitaratzea

Deialdi hau ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratuko da, eta ez da indarrean jarriko testua osorik argitaratu eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro arte.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Alokairuko etxebizitzak sustatzeko programa honi buruzko informazio eta zabalkunde materialak argitaratzeko baimena ematen da.

Bigarrena. Amurrioko Udalak eskaera izapidetzeak ordenantza hau erabat onartzea ekarriko du.

Amurrio, 2023ko ekainaren 1a

Alkatea

JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA